



ERLATEGI DIDAKTIKOA

Bisita gidatuak



Iturraran Parketxetik gertu eta helburu didaktikoekin, erlategi bat eraiki da eta bisita gidatuen bidez erleak ezagutu eta erlauntzen egitura eta antolaketa ikusi ahal izaten da. Erlategia erleak zuzenean eta arriskurik gabe ikusteko prestatua dago.

Euskal Herriko erle beltza da bertan daukaguna. Bertako erlea da, ekoizpen erregular bat ziurtatzen du, zainketa minimoa behar du eta ekosistema mantentzeko beharrezkoa da. Gure ekosistemen polinizatzaile nagusienetakoa da, horregatik da hain garrantzitsua bere kontserbazio eta zabalkuntza.

Publiko orokorrarentzako bisitak aste santuan eta udako asteburuetan burutzen dira eguerdiko 13:00etatik 14:00etara.



Bisita gidatuak Helduak 4,00€

Haurrak 3,00€

Gutxienez 10 pertsonako taldeak osatu behar dira eta eguraldi egokia behar da erlauntza irekitzeko.



ERLATEGI DIDAKTIKOA

Galdutako erlearen bila jolasa



Galdutako erlearen bila jolasaren bidez, erleak ezagutu, lorategia ikusi eta orientazioaren gaia jorratzea dira helburu.

Jolasaren lehen zatian, lorategian mapa bat eta iparrorratzaren laguntzaz erleen galderak dituzten baliza batzuen bila ibili behar da. Bigarren zatian, galderak zuzenduz, erleen inguruko azalpenak eman eta erlauntzen irekiera ikusiko da horretarako prestatuak dagoen erlategi didaktikoan.

Jolas hau, aste santuko jai-egunetan eta udako asteburuetan burutu daiteke edota txango gisa aurrez hitzartuta. Bi ordu eta erdiko iraupena du.



Helduak 6,00€

Haurrak 4,00€

Eguraldi egokia behar da erlauntza irekitzeko, bestela dastaketa tailerra eta kandelagintza burutuko dira.